


Hildako guztiek ez dute berdin balio



**NAGORE
IRAZUSTABARRENA
URANGA**

Normandia. 1944ko ekainaren 6a. *Overlord* operazioa abiatu zuten: Britainia Handiko, AEBetako eta Kanadako milaka soldadu Normandiako hondartzetan lehorreratu ziren, Bigarren Mundu Gerraren eta, beraz, historiaren norabidea goitik behera aldatzeko. Edo horixe da behintzat duela egun batzuk, lehorreratzearen 80. urteurrenean, komunikabide gehienek errepikatu digutena.

Eta, urtero bezala, testuingurua ahaztu dute; ordurako, Afrikako, Italiako eta, batez ere, Ekialdeko fronteetan alemaniarrek atzera egin zutela. Eta Bigarren Mundu Gerran inflexio puntu bakarra aukeratzekotan, esaterako, aurreko urteko Stalingradoko gudua objektiboki erabakigarriagoa izan zela alemaniarrek mendean hartzeko. Gerrako fronte nagusia ekialdekoa izan zen, gutxi gora-behera alemaniarren gaitasun militarren %80 xurgatu zuena.

Overlord operazioa ere erabakigarria izan zen, jakina. Baina, berriro, 1944ko ekainaren 6an hildako 4.400 soldadu aliatuen sakrifizioa gogorarazi dute, baita operazioan zehar hildako beste 50.000 soldadu ingururena ere. Eta ez dute aipatu 24 ordu haietan 3.000tik gora zibil hil zituztela, eta operazioan zehar, guztira, 20.000tik gora, gehienak aliatu "askatzailen" eskutik. Aliatuek gupidarik gabe bonbardatu zuten aretarioa, edo, hobe esanda, arerioaren kon-



LIBRARY AND ARCHIVES CANADA

trolpean zeuden normandiar herriak. Baina datu horiek lehorreratzearen kontakizun mitifikatua ilunduko lukete.

Aliatuen garaipenaren protagonistei dagokienez, sobietarren rolari garrantzia kendu ohi zaio. *Overlord* operazioan laguntzeko, indar alemaniarrek Frantzia aldera bideratu ez zituzten, bi eraso egin zituzten sobietarrek Ekialdeko fronteetan: Bagration eta Lvov-Sandomeirz.

251.000 soldadu sobietar hil zituzten bi eraso horietan, eta 520.000 soldadu alemaniar. Eta horiei Frantziako frontean hildako beste 200.000 alemaniar gehitu behar zaizkie.

Overlord operazioak iraun zuen bitartean hildako milioitik gora soldadu eta zibiletatik soilik 55.000 ziren Normandian lehorreratutakoak. Baina horiek dira balio dutenak. ●



MUSÉE DE L'ARMÉE

Normandiako beste lehorreratzea

1415eko udazkenean Agrincourteko gudua lehertu zen Ingalaterra eta Frantziaren artean, Ehun Urteko Gerraren gudu erabakiorrenetakoa. Horretarako, Henrike V.a Ingalaterrako errege eta Irlandako jaunak uda horretan bere ejertzitza Frantziara bidaltzea erabaki zuenean, soldaduak Normandiako hondartzetan lehorreratu ziren. Bost

mende geroago, Bigarren Mundu Gerran aliatuek estrategia bera erabiltzea ez da kasualitatea, eta, beraz, erraz aurreikusteko modukoa zen. Finean, "kointzidentzia" hori logikak eta topiko batek azaltzen dute: "Bi punturen arteko distantzia laburrena lerro zuzena da" eta "historia ezagutzen ez dutenak errepikatzen kondenatuta daude". ●